


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko maiatzak 14 / III. urtea / 75. zenbakia

Idazleak bete-betean

Urte oparoa izango da hau euskal literaturarendako Nafarroan. Bost bat liburu argitaratuko dira, eta egileen aldetik ezusteko handirik ez bada ere —dagoeneko ederki ezagunak direnek plazaratuko dituzte lanak—, ezusteko, berez, bada Aingeru Epaltzak, Patziku Perurenak, Patxi Zabaletak eta Pello Lizarraldek, besteak beste, esku artean zer bait izatea. Urte batzuetako idortearen ondotik, beraz, oparotasuna. Seinalea idazleak bete-betean aritu direla tarte honetan. Seinale ona.



Amen eta omen



AINGERU EPALTZA

Hauteskunde feria. Predikuan ari zaizkigu gu bereganatzeko eginahalean, gezurrak edo erdizkak egiak zein hanka laburrak dituen oroitu gabe. Luze gabe, burmuinak hainbertze zaborrieriatik gerizatu beharrean egonen gara, nonahi ikusiko ditugun hautagaien begitarte eskaleei nola itzuri asmatu beharrean.

Nerekin, alabaina, badute lanik.

Nere hautua egin baitut jadanik, irmoa, edozein gauza aditu edo irakurrita ere bihurtuko ez dudana.

Ez diot aitoren esplosiborik inon irakurrik edo aditu. Ez du krisialdi ekonomikoaz talaka ematen. Ez dakit zer uste duen Bosniaz edo abortoaz. Segurta-men haundiz, axola bera du negozioiaz eta iazko haizeaz. Ustelkeria aipatzen ez diot oraino aditu. Autodeterminazioak, nonbait, jala egiten dio.

Ez, haren arrazoiak begi-bistakoagoak dira.

Harrituko nintzateke aberztzalea balitz. Apostu eginen nuke euskararik ez dakiela. Haren zangoek —oi, haren zangoek!— ez dute, noski, ez Parlamentu ez Zuzenbide Fakultate baten atalburua sekulan zeharkatu. Ez du euskaltzain ez bertsolari itxurarik.

Autobus geltokietako estalpe horietariko batean deskubritu nuen lehengo egunean eta irrifarre batez bere programa erakutsi zidan; bere programaren erdia baino milimetro pare bat baino gehiago, zehatzago erran. Handik goiti dakit hartaz berte inork ez duela nere botoa eramaten.

Tamalez, ez bide nintzen bakarra izan aukera eder berriak liluraturik. Berte miliaka ere egonen ginen, noski, trantze be-rean. Boto-ihesaren beldur, ez dute denbora galdu nere hautagaiaren iduri xarmanta autobus geltoki guzietako estalpeetatik erauzten. Erantzukizuna Jaimek —oi, Jaimek!— hartu du bere gain. Baina nik badakit denak, jeltosia ezin eramanez, egon direla nahasirik erabaki horretan: Del Burgo, Cabases, Zabaleta, Taberna (Felix)...

Gure aukerak

Larrañetik Irabiara

Asteburu honetarako Larrañeko gaina eta Irabiako uharen arteko ibilbidea proposatzen dizugu, udaberria bere soineko ederrez jantzia. Beste garai aproposa udazkenaldera izaten da, orduan kolore eta ñabardura guztiak, bete-betean nabarmentzen baitira. Berdeak eta arreak, horiak eta nabarrak.

Irati da Nafarroan dagoen ohianik oparoena eta garrantzitsuena. 6.520 hektarearekin. Zaraitzuko Batzarrearena da, baina Aezkoarekin ere egiten du muga. Hegazti eta animaliei dagokienez izugarri oparoa da. Purroyk egindako tesian 63 hegazti/10 hektareko kopurua zehaztu zen. Halaber, oreinak ugariak dira, eta ez dira zailak ikusteko.

Ibilbidea Larrañeko gainetik gertu dagoen aduanatik aterako da. Larrañeko gain hau ia bakarrik abeltzainek eta mendizaleek erabiltzen dute gaur egun, praktikan, urte erdia itxita baitago, elurra dela eta. Larrañe zein Otsagabiatik igoz gero, ederra da oso. Bertan dago Orimendi, Atlantikotik hasita Piriniotako lehen 2.000. Mendi mitikoa euskal kanta eta olerkietan, bere tamaina



dela eta Euskal Herri osoko mendirik garrantzitsuenetakoa da.

Aduanatik atera eta mende balderuntz, Abodiko mendizerratik abiatuko gara, kaskoa utzi gabe. Bera da Iratiko oihera eta Zaraitzu eta Aezkoaren arteko muga, eta 1.400 metro-tako batazbesteko altura dauka. Bertatik zoragarria da ikusmirra. Gure oinetan ikus dezakegu Irabiako uharka, ezkerredera

Zaraitzu eta Aezkoa, eta giblean Nafar eta Huescako Pirinioa. Gutxitan da hain zabala begien aurrean agertzen zaigun paisaia.

Bideari jarraiki, Tapla izeneko pasabidea lortuko dugu, eta hortik, basoetatik, uharkara jeitsiko gara. Hortik, Orbaitzeta edo Otsagira, Elurretako Ama Birjinatik, baina hori bai, ibilgailu on batekin, pistak ez baitu askotarako ematen.

ERAKUSKETAK

Pello Azketa pintorearen erakusketa zabalik dago Iruñean, Aurrezki Kutxa Munizipalak Garcia Castañon kalean duen aretoan. Datorren maiatzaren 23a arte egonen da zabalik, eta ikusi nahi duenak lan egunetan arratsaldeko 19.30etatik 21.00ak arte eta jai egunetan 12.30etatik 14.00ak arteko orduetan joan behar du.

Pablo Okaña aragazkilariaren erakusketa zabalik dago Nafarroako Museoan, datorren maiatzaren 30a arte. Argazkietan Nafarroako kultura ezagunak izan diren pertsonaien argazkiak ikus daitezke. Egun osoan dago zabalik aretoa, Museoaren ordutegian.

MUSIKA

Koiuntura folk musika taldea ariko da gaur, maiatzak 14, Zizur Nagusiko Kultur Etxean, bertako udalak antolatuta. Kontzertua gaueko 10.00etan izanen da eta luze iraunen du. Sarrera dohainik izango da.

Imanol kantaria ariko da gaur, maiatzak 14, Iruñeko Gaiarre antzokian, arratsaldeko 20.00etan. Iruñeko udalak antolatutako 'Bedatseko giroa' zikloaren barruko ekitaldia da, eta datorren asteartean, maiatzak 18, Mikel Markez kantautore ariko da, ziklo beraren barruan. Nafarroako Antzerki Eskolan izanen da, arratsaldeko 20.00etan.

MINTZALDIAK

'Gazte utopia' gaiari buruzko mahaingurua bat izanen da gaur, maiatzak 14, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 104 ikasgelan. 'Gazte eta Kultur Alternatiba Jardunaldiak' izeneko zikloaren barruan, Nafarroako Gazte Kontseiluak antolatu ditu mahainguru hauek. Jaime Iribarren izanen da moderatzailea, eta parte hartzaileak, berriaz, intsumiso bat, ekologista bat, euskal kulturaren aldeko ordezkari bat, internazionalista bat eta sexu berdintasunaren aldeko militanteren bat. Arratsaldeko 19.30etan izanen da.

'Paperaren birziklaiaren garrantzia' gaiari buruzko hitzaldia emanen du datorren asteartean, maiatzak 18, Raul Tejada Palacios irakasle eta kimikoak, Alejandro Delgado irakaslearekin batera. Mintzaldia Korellako Kultur Etxean izanen da, herriko udalak eta Nafarroako Gobernuak antolatutak. Arratsaldeko 20.00etan hasiko da.

AHAZTU GABE!

BERTSO JAIALDI ugari daude asteburu honetan Nafarroan. Bihar larunbata, maiatzak 14, Zubietan ariko dira Iñaki Murua eta Sebastian Lizaso bertsolariak. Bertso afaria izanen da, eta gaueko 21.00etan hasiko da. Igandean, maiatzak 15, hiru jaialdi desberdin egonen dira. Berako Kultur Etxeko aretoa III. Bertsolari Gazteen Eguna ospatuko da. Euskal Herri osoko 25 urtez azpiko bertsolari gazte mordoak batek parte hartuko du. Bortzirietako bertso-eskolak antolatutako jaialdi honetan. Ondoren, afaria izanen dute Bertsolari Elkarteak Gazteek antolatuta. Emanaldia arratsaldeko 18.00etan hasiko da.

Ekitaldi hauetaz aparte, Arantzan beste jaialdi bat izanen da igandean, eguerdiz hasiko dena, bazkalorduan jarraitu eta arratsaldea arte iraunen duena. Herriko plazan eta ostatuan izango da. Bertan, Joxe Agirre eta Gorrotxategi bertsolariak ariko dira.

Amaitzeko, igande gauean beste bertso jaialdi bat egonen da Berueten. Bertso afari moduan antolatuta, herriko ostatuan. Bertan, Imanol Lazkano eta Angel Mari Peñagarikano ariko dira. Gaueko 21.30etan emanen diote hasiera.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0
Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarriketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5
Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

'ENTSULTSE' irratsaioa izanen da datorren igandean, maiatzak 16, Xorroxin Irratian, goizeko 11.00etan hasi eta 12.30ak arte. Bertan, Ferminxto Gartxitorenak Makutxo txistulari orpitsuari elkarriketa egingen dio, musika tartekatuz. Makutxok berak txistua joko du eta bere bizitzari buruzko galdera aunitz erantzungo ditu. Ondoren, 'Pottoka' musika saioan hasiko da, eta 14.00ak arte luzatuko da.

ASTEKO PERTSONAIK



Alfredo Jaime
Iruñeko alkatea



Asier Lasa
Bai Independentziari taldekoa



Angel Martin Gonzalez
Futbolaria

Teresa Moreno UPNko zinegotziarekin batera, Alfredo Jaime Iruñeko alkatea 'billabesen' geltokietan egun bat lehenago jarritako iragarkiak kentzea erabaki zuen, «sortu duten ondorezagatik». Iragarki horietan, marka italiar batenak eta oinetakoak iragartzen dutenak, neska eta mutil bat agertzen dira, eta neskak titia agertzen du. Kanpaina Estatu osoan pasa den asteartean hasi zen, eta egun horretan bertan, eguerdian, alkatea iragarkiak kentzea erabaki zuen. Dirudieenez, jende ugari deitu zuen udaletxera, gehienak emakume helduak, iragarki horietatik protestatzen. Estatu osoan izan bada ere, Iruñean bakarrik izan ditu arazoak kanpaina honek. Enpresa «erabat harrituta» zegoela azaldu zuen, «ez baita batere normala horrelakorik gertatzea».

Bai Independentziari taldeko arduraduna Nafarroan dugu Asier Lasa, eta talde honek ekitaldi berezi bat antolatu du datorren igandeko, maiatzak 16, Euskal Herriko zortzi hiri desberdinetan. 'Euskal Herria Europar Libre' izenpean aurkeztu dute ekitaldia, eta mugan dauden zortzi hiri hauetan kontzentrazio bana egingen da igandean, eguerdiko 13.00etan. Ikurriña bat jarriko dute eta animazio pixka batekin, giro alaiean jarraituko dute. Leku batzuetan bazkariak ere antolatu ditu Bai Independentziari taldeak. Nafarroan hiru hiritan egingen da, Biana, Kortez eta Zangozan. Ekitaldi honetaz gain, Bai Independentziari taldeak, Euskaria taldearekin batera, Gamazadaren mendeurrena ospatzeko ekitaldi bat antolatu du Iruñean.

Angel Martin Gonzalez erdilaria gorritxo madrildarrari ebakuntza egin zioten osteguneko. Izterreko giharrek ziatika nerbioa zapaltzen zioten jokalariei eta arazoa konpontzeko irtenbiderik azkarrena aukeratu zuen. Irtenbide azkarrena hautatu arren, hiru hilabete inguru beharko ditu berriro ere bete-betean aritzeko gai izateko. Eseri ahal izateko ere denbora franko beharko du, ebakuntza atzekaldean, eskuineko ipurdi masailan egin baitiote. Martin Gonzalez aspaldian hasi zen ziatika nerbioak sortutako minak sufritzen, baina promozioa gorritxoengandik hurbil zegoenez, azken unera arte itxoitea erabaki zuen. Gorritxoak oraindik ere promozio postuetatik gertu badaude ere, erdilariek ezin izan du ebakuntza gehiago atzeratu.


Koartela berreskuratu nahian

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Larraungo udalbatzak Lekunberriko Gabari etxeak Goardia Zibilaren koartela izaten jarrai ez dezan eta Goardia Zibilak bertatik alde egin dezan egin beharreko gestioak egitea aho batez erabaki zuen joan den asteazkenean, HBren proposamena onartuz. Horretaz gain, aurrera begira bailaran beste koartel bat eraikitze baimena ukatuko du udalak, abertzaleek aurkeztu eta udalbatzak onartu zuen mozio horren arabera. Larraundar Independentee, bestaldetik, beste mozio bat aurkeztu zuten Nafarroako Gobernuak afera honen aurrean izan duen jarrera salatuz, eta hori ere onartu zuen udalbatzak, HBren aurkako bo- toekin.

Bi mozioekin Nafarroako Gobernuak agertu duen jarrera gaititu nahi du Larraungo udal- lak. Juan Gonzalezek —UPN al- derdiko bozeramaileak nafar parlamentuan— joan den maiat- zaren 6an azaldu zuenez, Nafa- rroako Gobernuak ez ditu Gabari etxea Larraungo udalaren es- kuetara itzuli dadin egin beharre- ko gestioak eginen. Autobiaren eraikuntzaren inguruan sortutako afera zela eta, 1989an Gabari etxea koartel bilakatu zuen Na- farroako Gobernuak —Gabriel Urralburu gobernuburu zela—, eta obrak amaitu bezain laister etxea bailarako udalari emate- ko konprometua hartu zuen. Go- bernuak 70 milioi pezeta ordain- du zizkion Gurutze Gorriari etxearen truke. Salerosketa hi- tzarmenean elkarte horri —1994eko urtariletik aurrera, eta 2004. urtera arte— diru kopu- ru bera ordainduz gero etxea be- reskuratzeko eskubidea ematen zion klausula ezarri zuen Gober- nuak, udalari horren berri eman gabe.

Egun, horixe da udalak etxea- ren jabetza berreskuratzea ozto- patzen duena. Baldintza hori onarritzat hartuz, Nafarroako Gobernuak zera dio, datozen ha- mar urteotan etxea bailarako udalari ezin diola eman. Gonza- lezek azaldutakoaren arabera, nafar hiriburuko gobernuak Ga- bari etxea bertan «zenbait ekipa- mendu» ezartzeko eskainiko dio udalari baina haren jabetza, or- dea, ez dio emanen. Jarrera ho- rrek Larraungo udala aipatutako erabakia hartzera bultzatu du. Lehenik eta behin, etxearen jabe- tza berreskuratu nahi du udalak, gero etxearekin zer eginen duen erabakitze. Hori egin ahal izate- ko Gurutze Gorriarekin nego- ziatu beharko du, elkarte horrek etxea berreskuratzeko eskubi- dea aprobetxatu ez dezan. Ozto-



Nafarroako Gobernuak ez dio etxea udalari itzuli nahi.

po latza izan daiteke hori; izan ere, Gurutze Gorriak etekin han- dia lortuko luke etxea azken une- an, 2004. urtean, 70 milioi pe- zeten truke berreskuratuz. Ozto- po hori gaititzeko Larraungo udalak Nafarroako Gobernu eta Gurutze Gorria mahai baten in- guruan bildu nahi ditu, asteazke- neko plenoan erabaki zenaren arabera.

Etxea berreskuratzeko lehian Gobernu Zibila izan daiteke bi- garren oztopo latza. Larraungo

bailaran eta inguruetan, egun, Gabari etxea ezik ez dago beste koartelik eta autobiaren obrak amaitu eta gero ez dago batere argi non biziko diren inguruetan geratuko diren goardiak. Egun, 82 goardia daude Lekunberriko koartelean. Horietatik 64 auto- biaren obretan lehergailuak era- biltzen direlako ari dira bertan Gonzalezek azaldutakoaren ara- bera, eta gainontzeko 18 goar- diak bertan geratuko dira —zo- naldean, eta ez derrigorrez Gaba-

ri etxean— obrak amaitzen di- renean.

Honen inguruan 'Alde he- mendik' lemapean HBk mani- festaldia deitu du iganderako Le- kunberri. Manifestaldia eguer- diko ordu batean hasiko da eta Gabari etxearen jabetza udala- rentzat aldarrikatzea du helburu eta, horretaz gain, Goardia Zibi- laren koartelik ez dutela nahi argi eta garbi azaltzea, Ramon Astiz HBko zinegotzi larraundarrak azaldutakoaren arabera.

Elizondo

Eskolarteko Bertsolarien lehen txanda giro onez jokatu zen

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Nafarroako Eskolarteko Ber- tsolari Txapelketaren lehen kan- poraketa jokatu zen pasa den os- tiralean Elizondon, bertako ikas- tetxeetako ikasleen partaidetza- rekin. Giro polita eta jende berria ikusteko parada ederra, bertso zaharrak, lau oinak emanda bat- batean, baztandarren arteko le- hia eta bat-batean, eta bat-bate- ko txapelketarako lehen kanpo- raketa jokatu ziren.

Bertso Zaharretan Elizondoko Ikastolaren 5. mailak irabazi zuen, Xenpelar bertsolariaren betroia- renak bertsoekin, eta ondoren ikastola bereko 5. mailakoak gelditu ziren. Atzetik Sunbillako eskola gelditu zen. Ondoren jo- katu zen lau oinak emanda bat-

batean, eta bertan Josetxo Etxe- nika atera zen garaile, eta biga- rrena Enara Mitxelena.

Horien ondotik baztandarren arteko lehiaketa bat-batean izan zen, bertsolari gazte hauendako bat-batean kantatzeko lehenda- biziko aukera, eta bertan Irune Sansinena atera zen garaile, Ma- ribeltza Unanuaren aurretik. Horiakin batera, Amagoia Sansi- nenak, Bihotz Unanuak eta An- gel Iruretak hartu zuten parte.

Eguna amaitzeko Bat-bateko Txapelketarako lehen kanpora- keta jokatu zen. Izan ere, txapel- keta honetan nolabait iaioak dau- denek hartzen dute parte, eta gazteenendako tokian tokiko kanporaketak egitea erabaki zuen Nafarroako Bertsolari El- karteak. Horrela, Elizondon Es-

titxu Arozena, Estitxu Fernan- dez, Amaia Teiletxea eta Xabier Erkizia aritu ziren, eta Estitxu Arozena izan zen garaile, beste Estitxuren aurretik. Etxarrin eta Leitza jokatu dira hurrengo kanporaketak, eta hiruren artean lehendabiziko seiak ariko dira Berako finalean.

Halaber, bertso paperetan, 8. mailan, Irune Ariztegi donezte- barra suertatu zen garaile, ogitar- tekoa eskatu dizun eskale bati abestutako bertsoekin. Hor doa horien artean epaimahaiak txu- kunen iritzia ziona: Eskalearenga- tik/ senti dut erruki/ berak inoiz ez du ta/ dirurik eduki/ Noiztik dagon jan gabe/ edozeinek daki/ horregatik barruak/ dii bihotza uki/ otartekoa eman/ beharko diot nik.




SUNBILLAko sokatira taldeak irabazi zuen bertan pasa den la- runbatean jokatu zen Nafarroako Txapelketa. Lehiarik handiena, iragarrita zegoen bezala, Amaiur eta Sunbilarren artean izan zen, eta hirugarrena Araitz-Betelu gelditu zen. Ondoren, Lesaka, Basaburua, Erratu, eta Txantrea. Ultzamak ez zuen parte hartzerik izan, berandu heldu baitzen. La- runbat honetan ere, Elizondon, Nafarroako sokatira txapelketa hasiko da, 640 eta 520 kilotako mailetan.

LEKUNBERRIko V. Legua os- patuko da heldu den igandean, bertako Kirol Zerbitzuak anto- latuta. 6 kilometrotako ibilbidea egin beharko dute partaideek, eta sari berezia izango da errekorra gaitituko duenarendako: 25.000 pezeta, hain zuzen ere. Errekorari urte askotan eutsi zion 'Arruizko Txikitok' korri- kolari famatuak, 1957an egin zuen 18,57 denborarekin. On- doren bi aldiz gaititu da errekorra, eta egun Peio Garin gipuzkoarrak dauka, 17,49an. ibilbidea Ilargi tabernatik aterako da, eta Azpi- rozko Zia etxeraino joanen da. Joan etorria izango da frogia.



IRUÑEko planetarioarenak amaigabeko historia dirudi. Ha- maika aldiz atzeratuta, Nafa- rroako Gobernu eta Iruñeko udalaren arteko tirabirak direla eta, lehengo astean beste traba bat jarri zioten, kanpokalde urbani- zatzeko hitza bete ez zelako. Aste honetan, traba konpondu da, eta udalak bere gain hartu du urba- nizazioaren ardura, baina gastua Nafarroako Gobernuak ordain- duko du. Udaberri honetarako iragarrita zeuden hainbat ekitaldi bertan behera gelditu dira.

AEZKOko Batzarreak Nafa- rroan protestak eta kexuak eragin dituen gai bati buruz bere ahotsa altxatu du: ETB ikusteko erre- ztasunak eskatzea. Nafarroako Parlamentuan eztabaidatu zen gaia, eta zenbait proposamen zehaztu ziren. Ez da bidezkoa, baina, azken 10 urteotan euska- raz emititzen duen telebista ikus ahal izateko egin diren ahalegin guztiak jendearengandik sortuak izatea. Nafarroako Gobernuak beste elkarte autonomoko tele- bista dela dio, baina Aezkoako Batzarreak, beste hainbatek be- zala, «beraien, gero eta handio- goa den eskaera betetzeko nahia» baino ez dela azaltzen du.



Urte oparoa izango da hau euskal literaturarendako Nafarroan, bost bat liburu argitaratuko baitira. Urte idorren ondotik, oparotasuna. Ez da berri handirik izanen, ordea, ida-

zleen aldetik, ezagunak baitira denak. Euskal literaturari buruzko egoeraren azterketa egiteko parada egokia da, dudarik gabe, gutxitan harropa baitaitezke horrelako urteak.

Deituak ausarki, hautatuak eskaski

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

«Euskaraz izan diren idazle hobereak nafarrak dira», zioen berriki erretiratutako apaiz batek. Nafarroako euskalkiek beti eman dituzte idazle oparoak, eta tradizio handikoak izan dira euskal literaturaren mundu itikian. Egun, hala ere, euskal literaturak Gipuzkoan daukala nagusitasuna onartzen dute ia denek, eta bertatik ere nafarrak «bartzertu samurturik» daudela aipatzen dute. Gutxi, eta bartzerturik. Ez dirudi oso egoera ona. Hala ere, idazleekin beraiekin mintzatuz gero, ez da, inondik ere, horrelako inpresiorik sortzen.

«Ez da aunitz argitaratzen, hori garbi dago», dio Aingeru Epaltzak, «horretan aritzen garenok ere dozena erdia izanen baikara. Orain dela bospasei urte bateratsu plazaratu ginen denok, eta idazle andanak argitaratu zituen liburua. Honek itxaropenak sortu zituen, baina ondotik, egia erran, hutsune bat izan dela iduri du. Bakarrik Patxi Zabaleta eta Patzikuk eutsi diote argitaratzeari».

Denen ustetan, baina, argitalpen kopurua nahiko normala da, dauden idazleekin alderatuz gero, eta jende askok bere lehendabiziko liburua laister ateratzea

normala dela dio Pello Lizarralde, Zumarragako izan arren Nafarroan errotuta dagoenak. «Gazte-gaztetan nik uste dut gehiago idazten dela, eta presa gehiago dute argitaratzeko. Horretan gabiltzanok, egun 30 urtetik gora ditugu, eta adin horretan lan garrantzitsuagoak egin nahi dira, eta denbora gehiago pasa behar da horretan. Hortik, akaso, luzapen hori».

Izan ere, kontuan hartu behar

da Patxi Zabaletaren 'Nafarroako azken mariskala' lanaz gain, zenbait urte atzera joan behar dela azken nobela aurkitzeko. Tarte luzeegia batzuek, batez ere irakurleendako. Patziku Perurrenak, baina, horri alderdi positiboa ere aurki dakiokeela dio. «Seinale ona da, horrek esan nahi baitu jendea lanean aritu dela urte guzti hauetan, eta, beraz, esan daiteke lan txukun bat egiten ari dela. Lana bere denboraz zehaztu du, bere osotasunean, eta gainera, irakurlea gose pixka batekin ere izanen da».

Nafarroan, «galdezka edo inongo bazter izkutuak ikertzen

ibili behar izan gabe», 12 bat idazle zeudela zioen duela gutxi Jon Alonso itzultzaileak, hartara jarrita eta produkzio betean, liburuak argitaratzeko mugan daudenak eta bost-zortzi urte hauetan beren *opera prima* argitaratu duten guztiak kontuan hartuz. Ez gehiegi, antza, baina daukagunarekin konforme. «Idazleak dedikazioa eskatzen du», dio Epaltzak, «eta garbi dago egunegunero idatzi behar dela eta

buelta asko eman behar zaiola buruari zerbait idazteko. Gainera 'deituak ausarki eta hautatuak eskaski', hau da, hasten dena aunitz da, eta jarraipen ematen diona, gutxi». Idazleen artean ere, badira idatzi

bai baina gero liburua argitaratzen ez dituztenak, eta denek azpimarratu egiten dute idazle gehiago 'sortzea' ez dela erreza, «idazlea, berez baita». «Garbi dago hemen Nafarroan beste politikarik eramanen balitz jende gehiago animatuko litzatekeela idaztera», dio Aingeruk, «baina hala eta guztiz ere, ez dut uste


egoera arras diferente izanen litzatekeenik. Azken finean idazleak bakanka etortzen dira, eta beren helzte prozesua, idazkera findu eta mundu imaginarioa sortzeko prozesua bakarka egiten da».

NAFARRAK BAZTERTU SAMARTURIK

Hain zuzen ere, bakarkako proiektu horiek oso zuesu horiek oso errotuta daude nafar idazleengan, eta esan daiteke harreman gutxi dagoela haien artean, literatura munduaren barruan. Euskal literaturaren ohizko giroetatik ere at daude, izan ere, idazleen Elkarrekin edo argitaletxe handiak Gipuzkoan baitaude. Hemen Pamielak bete du, nolabait, orain arte hutsunea, baina periferiari buruz iritzi kontrajarriak dira. «Gipuzkoa numeroz eta kalitatez da nagusi, eta beraz, abantaila badute», dio Jon Alonsok. «Argitaletxeak hor daude, eta baita irakurleak ere, orduan baztertuta gotea normala da». «Dena Gipuzkoan dago», berretsi du Epaltzak, «eta periferikoak gara. Gainera, idazkerari eman nahi badiogu batua estandar horretatik aparte kolorea, arazoak handitzen dira».

Pello Lizarralde bazterketa hori idazleena bakarrik ez dela azpimarratu du. «Oro har, Nafarroan, zertarako nahi dugu

Aingeru Epaltzak 'Ur uherrak' argitaratuko du Pamielak ekainean, eta Patxi Zabaleta 'Ipuin bizidunak' bilduma eta nobela bat plazaratuko ditu Txalapartan. Patziku Perurrenak, berri, 'Ixileko kantak', eta 'Euskerak sorgindutako numeroak' izeneko liburua aterako ditu. J. LACALLE / A. BAYO



rraotik heldu denak ez du islada berbera izaten, eta gainera hor dago eragin handia duen egitura politikoa ere». Patzikurendako, baina, hori buruz aurriritziak badaudela dio. «Nafarroarekin badiago psikosis antzeko zerbait, eta jendeak esaten du 'txarra bada ere, nafarra denez...'. Baina euskal pentsamendua sortu duen autore bakarra Gil Bera izan da». «Gainera, zertarako nahi dugu

mintzoak

Literaturkeriak

● Badirudi euskal erakunde literario hauskorra, XX. mende bukaerako mundu zabaleko gainerako guztiak bezala, lau zutabedun etxea bezalakoa dela, idazlea, irakurlea, argitaletxea eta kritika direlarik zutabe horiek. Lau zutabe horiek zoz-luan sendo izan edo ez, karga berdina eusteko gauza izan edo ez, horretan datza etxearren tinkotasuna; egun oso nekez uler daiteke edozer lau elementu horien elkarren arteko harremanak haintzat hartu gabe. Idazleak —erakuntza horren zutaberik nagusitzat hartu ohi izan direnak—, ugaritu dira, hobetu, euren autonomia tinkoagotu dute, beste toki bat bilatu dute gizartearen barruan; beharbada, idazlearen gizartearekiko harremanei dagoen guztian gertatu da azken hogeitaz urte hauetako aldaketarik nabarmenena. Argitaletxeak ere hobetu dira; ez zen zaila, agian. Bistan da orain hogeitaz urteko euskal kulturaren zabalbideak oso bestelakoak zirela, baina kontua ez da hori; garai berrian sartu gara eta dago ukatzerik, eta garai berri honetan ahalaginak areagotzen dira, apustuak goragotzen, etapak azkarrago erretzen. Kritikoak dira atzeratu samar gertatu direnak, nonbait, eta egurrek handiena jasotzen dutenak: kritikarik ez dagoelako, dagoenean behar bezalakoa ez delako, klitxe zaharkituak errepikatzen segitzen dutelako, etabar. Gauzak honela, jende guztiak idazlea izan nahi du, gutxi batzuk prest daude argitaletxeetan lan egiteko eta ia inork ez du kritika izan nahi; honetan ere, haatik, badirudi gauzak zerbait aldatzen ari direla, eta kritikaren arloa zertxobait suspertzen hasi dela.

Urte oparoa

A. B. / IRUNEA

Bost liburu argitaratuko dituzte aurtun euskal idazle nafarrak, dena zuzen baldin badao behintzat. Oso kopuru aipagarria, aurreko urteetako erreparratuz gero. Horiez gain, beste bi idazle euren liburuei azken ukiuak ematen ari dira.

Aingeru Epaltzak Pamielarekin argitaratuko du luze gabe 'Ur uherrak', 1991ko Xalbador sariaren irabazlea. Berak azaldu duenez, bere hirugarren liburu hau —'Garretatik erazutakoak' eta 'Sasiak ere begiak badit'— dira aurretik argitaratutakoak —«nobela errealistak da, gaurko Euskal Herriarekin antza handia duen garai eta toki batean girotuta. Bertan, gainera, herri eta hiriko giroa uztartzen dira. Mikel Zarateri parafraseatuz, nire nobela antzeko ahalagin mingotsa izanen da».

Horrekin batera, Patziku Perurrena goizuetarraren poema liburua argitaratzeko asmoa duela azaldu du Pamielak, eta Perurrenak berak Irun saria irabazi zuen zenbakiei buruzko saiakerak laster kalean izango dela azaldu du. «Euskerak sorgindutako numeroak» du izena, eta aurretik loreekin egin nuen gauza beretsua egin du liburu honetan, nahiz eta numeroek koloreak ematen duten adina ez izan». Horrez gain, beste saiakera bat ere argitaratzeko prest dagoela azaldu digu. «Demokraziaren inguruan

nere ideiak azaltzen ditu, feminismoaren eta emakumeen inguruan zentratuta. Aspaldian egindako da, eta hor daukat, prest».

ZABALETAK BI BURU

Patxi Zabaleta leitzarrak ere bi liburu argitaratuko ditu aurtun, iaz 'Nafarroako azken mariskala' plazaratu ondoren. Nobela bat eta ipuin bilduma izango dira, nahiz eta oraindik horren inguruan ideia asko eman nahi ez duen. «Ipuinak nere umeei txikitzen kontatzen nizkien dira, duela hamar urtetik honakoak. Nobelaren izena baina, ez dut azaldu nahi, baina esango dizut: inbento bati buruzko gorra-beherak zehazten duen nobela izango da». Leitzarrak, nahiz eta hemen aipatu guztien artean literaturarekin harreman gutxien daukana izan ez du izen idazteari. «Nere harremana bizimodu hau ez dugunona da: irregularra, hain zuzen ere. Hala ere, gauden eta asteburuetan saiatzen naiz idazten, neretzako afizioa, grina baita».

Pello Lizarralde ere bere azken liburua aurtun amaitzeko asmoa dauka. Dagoeneko azken ukituekin ari da, narratibaz osatutako bilduma izango da, baina berak azaldu duenez, ipuinak baino nobela bat izatea gustuko luke. «Atmosfera bereko narratibak dira, oso lotuta elkarrekin, beraz ipuin modura ez dute funtzionatuko».

Idazle bera ordezkatzea iristen dena. Tira —galdetzen zion bere buruari Calvinok—, horrek zer kalte eragingo di niri, literaturazalea naizen aldetik? Borroka dezala delako tramankulu horrek hitzen itsaso hondargabearen aurka, neka dadila inoiz esan izan ez diren hitz-kateak asmatzen, nahi beste liburu idatz dezala: beti egon beharko da irakurle bat, beti, hitz-kate horien hotsa aditzaerakoan hunkitu, tristetu edo poztu egingo dena, beti; makinak egindako lanarekin gozatu dena, edo ez. Hortaz —bukatzen zuen—, literaturaren funtsezko jardura ez da idaztea, irakurtzea baizik. Irakurtzeko makina asmatzen ez duten bitartean (irakurtzeko makina baino, irakurtzeko pilulak izan izateke: inor liburutegira doa eta eskatzen du: aizu, emaidazu Dostoevskiren 'Idiota' eta Flauberten 'Madame Bovary'. Liburuzainak bi pilula ateratzen ditu. Bezeroak jan egiten ditu eta bi liburuak irakur balitza litzakeen gogoeta, jakintza eta sentsazio guztiak txertatzen zaizkio garuneko zirkuituetan) Calvinoren gogoeta honek ez dirudi hain burugabea.

Bada Italo Calvinoren saikaera txiki eta zahar bat —orain hogeitaz bat urte idatzita, edo?—, 'Cibernetica y fantasmas' tituluarekin gaztelatu zutena, hainbatetan aieratu den kontu interesgarri baten ondorengo bertsioa plazaratzen duena (barkatu bapateko laburpena, buruz ari naiz eta); demagun etorkizunearn mota guztiakotako liburuak idazteko makina asmatzen dutela, eta ez telefilmakotako gidoiak egiteko erabiltzen diren ordenadoreak bezalakoa, baizik eta idazle bera ordezkatzea iristen dena. Tira —galdetzen zion bere buruari Calvinok—, horrek zer kalte eragingo di niri, literaturazalea naizen aldetik?



Borroka dezala delako tramankulu horrek hitzen itsaso hondargabearen aurka, neka dadila inoiz esan izan ez diren hitz-kateak asmatzen, nahi beste liburu idatz dezala: beti egon beharko da irakurle bat, beti, hitz-kate horien hotsa aditzaerakoan hunkitu, tristetu edo poztu egingo dena, beti; makinak egindako lanarekin gozatu dena, edo ez. Hortaz —bukatzen zuen—, literaturaren funtsezko jardura ez da idaztea, irakurtzea baizik. Irakurtzeko makina asmatzen ez duten bitartean (irakurtzeko makina baino, irakurtzeko pilulak izan izateke: inor liburutegira doa eta eskatzen du: aizu, emaidazu Dostoevskiren 'Idiota' eta Flauberten 'Madame Bovary'. Liburuzainak bi pilula ateratzen ditu. Bezeroak jan egiten ditu eta bi liburuak irakur balitza litzakeen gogoeta, jakintza eta sentsazio guztiak txertatzen zaizkio garuneko zirkuituetan) Calvinoren gogoeta honek ez dirudi hain burugabea.

Kontuak kontu, badirudi literaturak behar duela halako gutxieneko irakurleko heldu eta hezia, minoritarioa izanda ere publikoaren zutabeari dagokion karga eusteko gauza dena. Helduko al dio inork, inoiz, halakorik sortzeko lanari?

Jon Alonso Itzultzailea

Gazteendako Zokoa



Nafarroako Banakako Xake Txapelketako 9. jardunaldiko partida, martxoaren 27an jokatuta. Oskar Lazkoz (1.835 ELOkoa), txuriekin, Manuel Redinen (2.185 ELOkoa) kontra.

1. e4,c5; 2.Zf3,d6; 3.d4,Zf6; 4.Zc3,d4; 5.Zd4,g6; 6.f3,Ag7; 7.Ae3,0-0; 8.Dd2,Zc6; 9.0-0-0, d5. Ez da jokaldi ona. Beltzek galtzen dute peoia. 10.Zc6,c6; 11.g4. Denbora galdu du. Peoia irabaz zezakeen. 11...,Da5; 12.Eb1,Gb8; 13.Zd5. Beltzen Dd2 jokaldiari 'Zf6 xa' dute txuriek. Hala ere, une txarra zen peoia irabazteko. 13..., Gb2 xa; 14.Ec1. Bestela, 14.Eb2,Ze4 xa, eta dama galduko luke. 14..., Da3. Mate mehatxua dago. Nahikoa da gaztelua behera eramatea. 15.Df2,d5; 16.e5,Ga2 xa; 17.Ed2Da5. Txuriek amore eman zuten, erasoari eutsi ezinik. Adibidez, 18.Ad3,Aa6. Edo 18. Gc1Zg4; 19.g4,Ag4; 20.Ae2, Gc8. Endroke luzea ez zuten ongi babestu.

Bertsoak

Mateko irakaslea izendatu zaituzte eta ikasleen aurrean zaude lehendabiziko aldiz. Leitzako Bertso Eskolako

Egunon denak nola zaudete
Ni naiz mateko maixue
galdetu diot nere buruari
ezagutzen al nauzue
Mateko azterketak lapurtzen
saio egin didazue
azaltzen ez baldin bazarete
suspendituko duzue

Nere semeek esan didate
ondo portatu haiekin
baino kasurikan egin gabe
gogor nahi nuke hitzegin
nere andrekin komentatu det
zuek denakin zer egin
hau suspenditzen baldin ba'zue
hurrengoa ere berdin

Igor Bengoetxea

Arkaitzek eraikitako tresna bitxia

JUANITO MARIEZKURRENA

Baziren bi mutil, Arkaitz eta Jon Ander izenekoak, Makaiu herrian bizi zirenak. Oso-oso lagunak ziren gainera. Arkaitz, langile ona zen, azterketa guztiak gainditzien zituen eta zientziak ere asko zekien. Txiki-txikidandik ikus zitekeen zientzilari ona izango zela zeren eta ipui eta zientziei buruzko lehiaketa guztiak irabazten zituen.

Jon Ander ostera, oso zabarra zen, utzia, eta ez zuen lan askorik egiten. Baina hala ere, bi mutilak lagun minak ziren eta oso ondo pasatzen zuten elkarrekin. Horrela, ostiral batetan Jon Anderrek galdetu zion Arkaitzi:

—Arkaitz, zinemara edo nora joan nahi duzu?

—Gaur ez daukat inora joateko gogorik.

—Baina, izugarritzko eguraldia egiten du eta!

—Ez, gaur ez naiz irtengo.

Jon Ander oso harrituta geratu zen. Ostiral gehienetan irtetzen ziren edonora. Orduan oroitu zen Arkaitzek aurreko ostiralean gauza berdina esan ziola. Kezkaturik geratu zen Arkaitzi zerbait arraroa gertatzen zitzaioela pentsatuz. Eta bere lagunaren etxera joatea erabaki zuen zer gertatzen zitzaion jakin nahirik.

—Ding-dong, ding-dong— jo zuen txirrina Jon Anderrek

—Nik irekiko dut atea ama. Zu lasai.

—Kaixo Jon Ander! Baina zer zaude hor atean, sartu, sartu!

—Epa Arkaitz, zurekin hitz egingera etorri naiz, zer gertatzen ote zaizun jakitera, aspaldion oso ezberdina, aldatuta somatzen bait zaitut. Zer gertatzen zaizu? Arazo larriren batetan al zaude? Niregatik ote zaude horrela?

—Ez, lasai zaitetz Jon Ander, ez bait da ezer txarrik gertatzen. Sekretu bat ixilpean gordetzeko gai al zara?

—Bai, bai, noski!

—Orduan, zatoz nirekin ganbarara.

Joan ziren biak eta Jon Ander harriturik geratu zen. Zer ikusiko han eta benetako laborategi bat. Bazter batetara begiratu eta tresna bitxi bat ikusi zuen. Eta galdetu zion:

—Zertarako da tresna hori Arkaitz?

—Hau, denborazko aparailu bat da, hau da, denboran aurrera eta atzera eraman gaitzakeen tresna da— esan zuen Arkaitzek tresna zegoen lekura hurbilduaz.

—Amaituta al dago?

—Berehala amaituko dut.

—Zer iruditzen zaizu bihar ondo dabilen egiaztatazen badugu? Larunbata denez, ez duzu egitekorik izanen.

—Primeran!!

—Bihar arte orduan. Eta ez berandu etorri!

Pozaren pozez Jon Anderrek ez zuen gau guztian lorik hartu, ezta Arkaitzek ere. Iritsi zen azkenean goiza, eta Jon Ander goizean goiz joan zen Arkaitzen etxera.

—Prest al zaude?— galdetu zion Arkaitzi.

—Prest!

Sartu ziren bi laguntxoak denborazko aparailu bitxi hartara baina...

—Zer egingo dugu orain? Nola hasten da martxan aparailu hau?

—Botoi bat sakatu behar da, baina orain ez naiz oroitzen zein botoi den—, erantzun zuen urduritasunez Arkaitzek.

—Botoi hau sakatuko dut, ea zer gertatzen den...

Argi gorri bat piztu zen eta berehala martxan jarri zen. 2080. urtean azaldu ziren gure laguntxoak. Guztia oso ezberdina zegoen. Dena errotoez beteta zegoen. Ez ziren inondik ere gizakiak ageri. Guztia metalezkoa zen. Etxeak, zuhaitzak, txoriak, mendiak... Jon Ander eta Arkaitz aho zabalik geratu ziren eta pixka bat izuturik ere bai. Ez zitzaizkien mundu berri hura gustatu. Eguzkia ezkutatu baino lehenago itzuli behar zuten etxera. Ametsa zirudien bidai hartatik etxera itzuli ziren eta poztu egin ziren hain mundu polit eta ederrean bizitzeagatik. 2080. urtean bezalako herrian ez zutela bizi ahal izanen pentsatu zuten. Beste zerbait egitea erabaki zuten, aparailu hura berriro ez erabiltzea hain zuten ere. Baina hala eta guztiz ere ez zioten aparailu berriak asmatzeari utzi, eta milaka tresna bitxi sortu zituzten. Munduan zehar oso zientzilari eta asmatzaile ospetsu bilakatu ziren Arkaitz eta Jon Ander.



Eloko Higa


Nafar gutxi ez dute Elo parean altxatzen den alimalako haitza ezagutzen. Euskal plano gehienetan *Elo-mendi* esaten zaio eta *Higa de Monreal* edo *La Higa* erderazkoetan. Non da, bada, arazoa?

Izen honen jatorria arakatuko bagenu nekez aurkituko genuke *Elomendi* agiri zaharretan eta Eloko leku-izenen bilduman. Ezin aurkitu gainera, ehun urte eskax duen izen asmatua delako. Asmatzailea Arturo Kanpion bide da. Honek Monreal euskaraz Elo esaten zela ikasi zuen eta ondoren, Higa erdaratzat hartua, jauzi txikia eman zuen herria eta mendiaren izenak nahastuz. Jakina Elo Monreal da eta Monrealek *monte real* esan nahi du. Hemendik abiatuta iruditu zitzaion errege-mendi honek ere Elo zuela izena, eta honelatsu idatzi zuen '*Elo nombre indigena de la Higa de Monreal*'. Segurua da, dena den, bertako *indigenengan-dik* ez zuela izen hori eskuratu. Etxean eta bere kasa okurritu zitzaion herriaren izena arras ego-kia zela erdal kutsuko izena alde batera baztertzeko. Geroago gainera, emaitza borobiltzeko, mendizale sutsu batek mendi erantsiko zion gaurko forma berria osatuz. Baina joan den mendeko eloar euskaldun bati mendiaren izena galdetu bagenio *Iga* erantzunen zigen. Are gehiago Igaren atzealdean den bagadia *Igagibela* dela esanen zigen eta beste paraje bati *Igaondoa* esaten ziotela. Paper zaharrei begira gainera Iga ikusiko dugu XI. mendean, *Iga* eta *Hiiga* grafietan, agian, Mitxelaren ustez, *ihiga* baten ondorengoa.

Baina zergatik garbitu dugu euskal izen hau? Seguruenik aurretik erdarazko la artikulua paratu diogulako eta *Higa* ere erdara zela iruditu zaigulako (*higa* euskaraz *pikua* esanen genuke). Baina gaztelarazko hiztegiaren ez dugu *higa* aurkituko mendia esanahiarekin ez eta, konparazio batera, la Higa del Garde, la Higa Negra bezalako izenik ere ez dugu inon aurkituko. Zergatik? Erdara ez delako. Eloko euskaldunek sortu zuten gaur esanahi iluneko izen hau.

Elomendi, haatik, oso zabaldua dago eta sasikoa izan arren franko erabilia da. Euskaltzaindiak berak onartzen du mendi katalogo batean. Dudarik gabe Nafarroako Toponimia Batzordeak, historia eta bertakoen usadioa begiratzuz. Higa hobetsiko du. Ez daiteke arribitxi hau utzi erdaldunen ahoetan bakarrik, gurean ere lekua merezi baitu.

MIKEL BELASKO



KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren Sunbilla jasotako esatera zahar bat ageriko zaizu.

1. Apal
2. Barneratu
3. Badia handi
4. Gaisoak
5. Txibak, dantxariak

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A										
B										
D										

Jenero Xumekoak

Nire haurrari

Nominatiboa fruta. Ergatiboa frutak. Partitiboa frutarik. Genitiboa frutaren. Datiboa frutari. Adlatiboa frutara. Ablatiboa frutarik. Inesiboa frutan. Prolatiboa frutatzen. Egia esan nahiz eta fruta ez jan, igual igual biziko haiz. Zergatik aita kakazu honek inpatientziak frutari begiratu behar?

JEREMIAS ERRO

Bizi Bizian

Nafarren Etxeak antolatuta Euskararen Eguna ospatu zen pasa den larunbatean Bartzelonan, zantantzar, 'Korricursa' —korrika katalana—, trikitilari, dantzari, bertsolari eta abarrekin. Bertako Udaltzaingoa laguntza eskergarriarekin Ramblak

eta Diagonala euskal soinu eta ohituraz bete ziren, eta Nafarren Etxeak egunik ederrenetako bat bizi zuen. Aurten lehendabiziko aldiz egin bada ere, hurrengo urteetan berriro egiteko asmoa dute Euskararen Eguna antolatu dutenek.

Euskararen Eguna Bartzelonan

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Euskararen Eguna egiteko ideia nolabait ustekabea sortu zen bertako euskaldunen artean. Nafarren Etxean dauden euskarazko ikastaroen artean zegoen giroa urtetik urtera «motel samarra» zela kontuan harturik, aurreko afariaren bat egitea bururatu zitzaion irakasle, eta horrekin batera, kontzerturen bat. Gauzak pilatuz joan ziren, eta azkenean, zerbait serioago egitea deliberatu zuten.

«Dena afari batean hasi zen, baina gauza handituz joan zen, eta azkenean, Euskararen Eguna egitea bururatu zitzaigun», dio Aitor Karasatorre etxarriarrak, Nafarren Etxean euskal irakasle eta Bartzelonan ikasle denak.

Nafarren Etxea Euskal Etxea itxi zenetik euskaldunen biltokia izatea nahi izan dute honen bidez antolatzaileek. Egun 800 bazkide inguru, nafarrak ezezik, Euskal Herri osoko jendea ere biltzen da etxe honen inguruan. Urtean zehar, baina, ekin-tzen falta sumatu zuten bertara joandako gazteek, eta egun beren helburua da pilota eta euskara ikastaroak eta txistulari taldeak baino zerbait gehiago antolatzea. «Euskal Etxerik ez dago Bartzelonan, eta Nafarren Etxea euskaldun guztion izatea nahi dugu. Urtean zehar baditu talde batzuk, baina festa bakarrik Nafarroan festa denean egiten da: San Frantzisko Xabier, Sanferminak eta abar. Horregatik, beste ekitaldi batzuk antolatzeko asmoa dugu, eta aldizkariaren bat atera».

KOLONEN INGURUAN ZANTANTZARRAK

Egitaraue goizeko 10etan hasi zen Koloni eskainiko monumentuaren inguruan izan ziren txalapartariak eta zantantzarren, eta ondoren, 'Korricursa': korrika+curra. Herri bazkarien ondorekin, bertsolarien emanaldia, Iruña Dantza taldearen emanaldi ikusgarria eta 'Lahiez' talde kataluniarra eta 'Ortzi' sakanarren folk emanaldia izan ziren arratsaldean. Ordu txikiak arte iraun zuen egunak. Eguna Xabier Nabarte aranoarrari omenaldia egiteko baliagarria izan zen, berak eutsi baitie urte guzti hauetan euskarazko ikastaro. Hori dela eta, arratsaldean omenaldia egin zitzaion Narbarteri.

Antolatzaileek bertako irratietan, egunkarietan eta unibertsitatean iragarri zuten egitaraua,



'Korricursa' Rambletan eta zantantzarrak Kolonen itzalpean. GOMEZ

eta Aitor Karasatorrek eguna antolatzeko orduan Bartzelonako Udala aldetik izandako jarrera ona azpimarratu du. Eguna antolatzeko bertako euskal jate-teen, Euskadiko Kutxaren eta Nafarroako Gobernuaren lagun-

tza izango dutela dio Karasatorrek. «Nafarroako Gobernuak beti ematen ditu dirulaguntzak, eta aurreko jaialdi honetarako dirua emango digula espero dugu, hurrengo urtean berriro egin ahal izateko».

«Gu saltoka, besteak begira»

P.U. / IRUÑA

■ Ez da errez bururatzen zantantzarrak Bartzelonan egin dezaketen soinuak adituta katalanen erreakzioaren nondik norakoa, edo 'Korricursa' izeneko lasterketa txorua, pankarta, ikurrin eta guzti, Ramblasetatik barna ikustek eragin ditzakeen galdarak asmatzea. «Gehien harritu gintuena udaltzaingoen jarrera izan zen» azaldu du Manu Gomez bertsolariak, «oso modu onean beti, laguntza handia eman baitzuten». Bera bertan izan zen Amaia Telletxea eta Juanjo Respaldizarekin batera, bertsotan aritzeko antolatzaileek deituta, eta zantantzarrak eta 'Korricursak' sortu zuten harridura azpimarratu du. «'Korricursan' 20 bat aritu ziren Kolonen plazatik Unibertsitate bitarteko ibilbide guztian, eta azken kilometroan 80 bat egon ginen. Izan ere, 8,5 kilometroko ibilbidea egiteko furgoneta bat zihoan aurrean, gero kotxe bat eta atzean autobusa, dantzariak, eta hemendik joan-

dako jende guztiarekin. Eta gu-rekin batera, Udaltzaingoa. Une batean, Diagonal kalea moztu behar izan zuten, eta ez zuten inolako kexurik egin, dena oso modu onean egin zuten».

'Korricursak' jende askoren ustekabea sortu bazuen ere, zantantzarrak ez zen gutxiagorako izan. «Larruak eta joareak prestatzen hasi zirenean hurbildu zen jendea, eta gero, Rambletan dantzan hasi zirenean jende askoz gehiago gelditzen zen begira. Hor nabari zen zeintzuk ziren euskaldunak eta zeintzuk ez, gu saltoka ari ginen bitartean, besteak begira baitzeuden. Atzerri-tarrek segituan ateratzen zituzten argazki makinak, eta jende asko balkoiara azaldu zen, soinuak erakarrita».

Ondoren Unibertsitate plazan txalaparta, fanfarrea, trikitixa eta abar izan zen, eta arratsaldean, Nafarren Etxean, Iruña Dantza Taldearen emanaldia. «Izugarri polita izan zen, eta bertara jende asko hurbildu zen. Frontoia txikia gelditu zen».

Eugenio Ulaia

.....Apaiza

Apaiza 18 urtez izan den Eugenio Ulaia etxarriarrari omenaldia egin zion pasa den igandean Lakuntzak, erretiroa hartu duela eta. Euskaltzale fina, Sakanako herrian bultzatzaile nagusienetakoa izan da hainbat urtetan,

Lakuntzako Pertzan, ikastolan, AEKn eta antzeko elkarteetako bazkide mugituenetakoa. Sermoiak ere mugituak zituen, denak desberdinak zirela esaten baitu. «Nere pekatu handiena, hitz egiteko dudak erreztasuna izan da».

«Erreztasuna izan dut hitz egiteko»

A. B. / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Pasa den igandean egin zizuten omenaldiak Lakuntzak dizun estimuaren isladak gisa hartuko zenuen ezta?

EUGENIO ULAIAR.— Bai, izan zen bat-bateko gauza, neronek ere ez bainekien. Duela gutxi, telefonoz deitu ninduten, eta azaldu zidaten asmoa. Igandean, herri osoa han zen, eta programazioa egin zuten herrikoak ziren. Hara joateko aitzakia besterik ez bazen ere, ikustea herria nola mugitu zen, nola batasun bat ikusi zen, merezi zuen.

EGUNKARIA.— Eta zein izan da zure merezimendua lakuntzarrek horrela gogoratzeko?

ULAIAR.— Kontuan hartu Lakuntzan 18 urte pasa ditudala, eta oso garai gordinak, gainera. Izan du ditut hildakoak, hilketak, hasierako gogorkeria hura, bai erlijio eta politikaren aldetik... Ez zen orduan biderik ikusten. Gero hartan ez zen erreza gauzak egiten. Orduan hil zuten Mikel Arregi, eta oso giro gogorra zegoen. Herri osoa eta inguruko herrietan ere jendea kalera atera zen. Herrian zerbait egiten bazen, bera han zegoen sartuta. Jatorra, langilea eta jendea mugitzeko balio zuena zen gaztea, eta meza inguruko herrietako apaizekin batera egin genuen.

EGUNKARIA.— Zu Etxarrikoa zara, eta Lakuntzan amaitu duzu. Hala ere, beste herrietatik ere pasazara. Non errotu zara gehien?

ULAIAR.— Lakuntzan, hemen bukatu dudalako. Uitzin egon nintzen aurretik, baina han ahaztuta edukiko naute, hainbeste urte pasadirela eta. Gainera, Uitzin bertan baino askoz lan gehiago egin genuen Artziprestazgoan ibili nintzenean. Uitzin, adibidez, ar-

giarekin borrokan aritu ginen, ez baitzen indarra argi bat pizteko ere. Zentral bat zegoen inguruan, baina etxe bakoitzean bonbila bat eta ordu bat egunero pizteko baino gehiagorako ez zuen ematen. Han borroka izan genuen bailaran ura ekartzeko, baina azkenean ez zen konponbiderik izan, herrien arteko borroka zirela eta. Azkenean Uitzik egin zuen, dirua zuelako.

EGUNKARIA.— Lakuntzara 1974ean etorri zinen, eta Sakanako garai hartako apaizen artean izan ziren, zurekin batera, euskararen alde gogor lan egindakoak.

ULAIAR.— Euskararen aldeko lanean Uitzin hasi ginen, eta orduan 'Kili-kili' famatua jarri genuen martxan. Gure haurtxoei, gutxienez, irakurtzen eta idazten erakusteko sistema bat zen, eta Nafarroa guziko ikastolen umeak bildu genituen honen inguruan. Apezak izan ginen hori mugitu genuenak, eta gurekin batera irakasleak. Sistema hori ontzat hartu zen, eta Diputazioari dirulaguntza eskatu zitzaion hori egiteko. Milioi erdia eskatu genuen, eta orduan sortu zen batzorde bat guzti hori aurrera eramateko. Herri guztietako datu eta gastu guztiak aurkeztu behar genituen, eta ni nintzen horretan arduraduna.

Lakuntzara etorri nintzenean, zabalik zegoen umetxoan ikastola. Udala mugitu zen orduan, Lanbide Eskolako gela batzuk ikastolara eramateko, eta lortu zuten.

EGUNKARIA.— Hala ere apaizen artean ere bazeuden etsaiak euskararendako.

ULAIAR.— Etsaiak, batzuk bai, baina gehienek ez zioten axolarik ematen, eta gaia arriskutsua edo irristatzekoa zenez, ba gainetik ikusten zuten, arretarik gabe.



Egun Iruñean erretiraturata dago Ulaia.

JOXE LACALLE

Guk, baina, lan handia egin genuen. Lasalletarrak zeuden Lakuntzako Lanbide Eskolan, eta oso sartuta zeuden herriarekin. Lakuntzako Pertza elkartea zela, euskara irakastea zela, zerbait euskara genekienok gero ginen irakasleak. Orduan bi gauza oso garrantzitsuak egin genituen. Bat ikastolaren aldetik, bestea, AEKren aldetik. Ikastolarendako zortzi gela eskatzen zituzten, eta, jakina, non sortu zitezkeen herri txikietan zortzi gela? Orduan, gurasoei, elkarte bat sortu ge-

nuen. Izena asko begiratu genuen, garai haietan, Madrileko ordenagailuek oztupo egiten baitzuten, nonbait, euskarazko izena sartzen bazen. Eta San Migelen izena jarri genion elkarteari. Banatzean Etxarri zen indar gehiena eta kontzientzi handiena zuena, bina Altsasun jarri genuen lehendabiz, bertan hil-zorian baitzegoen euskera. Eta Eneko Aritzak ikastola sortu genuen.

Gero zegoen gau eskola, eta Irurtzundik Ziordiraino jendea hor biltzen zen. Denak ginen lan-

gileak, baina inor ez zitzaion lotzen behar den bezala lanari, eta garbi ikusi genuen liberatu bat ekarri behar genuela, denek ordainduta. Eta Nafarroan lehendabiziko AEK hemen Sakanan egin genuen. Eta Sagrario Aleman izan zen lehendabizikoa. Bi gauza hauek beste giro bat eman zioten herriari eta euskarari hemengo aldean.

EGUNKARIA.— Hala ere, Sakanako oso euskalduna izanik ere, apenas izan den euskaraz idatzi duenik. Zuk bakan horietako baten lana aztertu zenuen, Blas de Alegriarena, hain zuzen ere.

ULAIAR.— Jose Maria Satrustegik utzi zidan nere eskuetan bere lana biltzeko ardura. Bera aberztalea zen, eta gerra garaian estu eta larri ibili zen. Argitaratu zuen guztia erre egin zioten, eta bere familiakoek, beldurrez, dena sartu eta zaku batean itsasora bota zuten. Berak egin zuen lanetik, beraz, oso gutxi gelditzen zen. Azterketa egiten hasi ginen, eta hori ikusi genuen bere lanik hobetena 'Gure ama' izenekoa zela. Antzerkia ere badauka, ederra. Horretaz gain, Etxarri-Aranazko Bitoriano Uitzik gramatika bat atera zuen joan den mendearen amaieran.

EGUNKARIA.— Zuk ere zerbait idatziko zenuen.

ULAIAR.— Zeozer, baino gutxi. Nere pekatu handiena izan da erreztasun handia izan dudala hitz egiteko. Sermoiak ez ditut inoiz idatzi, beti buruz egin ditut. Idazten baduzu, beti galtzen da zerbait. Idatzi, lantxoaren bat edo beste idatzi dut, Lakuntzako Pertzari idatzitako bertsoak, adibidez: '...poztu zaitez gurekin Lakuntzako Pertza/zurea bazen ere samina eta beltza/guztiak biltzebiltzen zutaz galdezka...'

NOSKI JATOR

ZVLDI ERDA

